

## Javier Zubia izango da Gipuzkoako Bazkundeko idazkari nagusi berria

- *Gaur burutu den osoko bilkurak guztien adostasunarekin berretsi du Javier Zubia Gurucetaren izendapena.*
- *Osoko bilkuran Batzorde Exekutiboko lau kide berriak aukeratu dira eta baita Gipuzkoako Bazkundeko osoko bilkurako bost gonbidatu iraunkorrek ere.*

**Donostia - 2018ko abenduaren 12a** - Gipuzkoako Bazkundeko Osoko Bilkurak Javier Zubia Guruceta izendatu du Gipuzkoako Bazkundeko Idazkari Nagusia, eginkizun hau Zuzendari Nagusiaren eginkizunekin batera beteko du. Izendapena, gaur onartua izan da Osoko Bilkura guztiaren adostasunarekin.

Javier Zubia Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean. Finantziarioari eta nazioartekotzeari lotutako jarduera profesional zabala du, 2016tik SAPA Enpresako Finantza Plangintza Zuzendaria da, bertan konpainia honek Michiganen egin duen ezarpen industrialaren arduraduna izan da.

Urte bat lehenago, 2015ean, ESTUDI GRAF enpresarentzat merkatu berriak irekitzeaz arduratu zen Gerentearen Alboko Zuzendari karguan zegoen bitartean. 2010 eta 2015 urteen artean KUFINEXeko Zuzendari Nagusia izan zen. Kufinex, Kutxak (ondoren Kutxabank izan dena) eta Gipuzkoako Bazkondeak sortu zuten honako helbururekin: aholkularitza eta finantzazio produktuak elkartu zerbitzu ezberdin bat eskaintzeko.

Kanadan eta Frantzia produkzio fabrikak dituen munduko zelulosa produktore handienetako bat den enpresan, TEMBEC INC-en, Zuzendari Komertziala eta Nazioarteko Zuzendari izan zen taldearen salmentak Europan, Txinan, Turkian eta Afrika Iparraldean bermatuz. Horrez gain, Europako Tembec Taldeko Zuzendari Batzordeko kidea izan zen. Tembenc Inc egon aurretik lau urtez (1.994-1.998) PETERSON ESPAÑOLA enpresan egon zen Zuzendari lanak betetzen. Peterson enpresak, nazioarteko fabrikanteek produzitutako zelulosa komertzializatzen du Espainia eta Portugalen.

Javier Zubiaren ibilbide profesionala finantziarioari eta nazioartekotzeari lotuta egon da hasiera hasieratik, 1.990 urtetik 1.993 urtera BANESTOK Madrilen duen egoitzan nazioarteko finantzazio departamentuko kide izan baitzen.

Gipuzkoako Bazkondeak izendapen hau poztasunez hartzen du “poztasun handia da enpresa munduan horrelako ibilbidea duen pertsona bat izatea gure artean eta nazioarteko merkatuetan hain esperientzia zabala duena, kontutan izan behar baitugu erakundearen erronka nagusietako bat Gipuzkoako enpresak merkatu berrietara ateratzen laguntzen jarraitzea dela”. Bide batez, Gipuzkoako Bazkundeko Osoko

Bilkurak eta Batzorde Exekutiboak une hau baliatu nahi izan dute Endika Sánchez Aguirrek urte hauetan zehar erakundean eta erakundearengatik egin duen lana goraiatzeko eta eskertzeko.

### **Osoko Bilkurako kide berriak**

Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako Bazkundeko barne-araudia onartu eta gero, gaurko Osoko Bilkuran Batzorde Exekutiboko lau kide berri aukeratu dira: Marpe Decoración-eko Iñaki Martínez, Ascensores Muguerza-ko Joseba Martínez, ArcelorMittal-eko Beñat Odriozola eta Fagor Arrasate-ko José Mari Balzategi. Aukeratu berri izan diren lau kide hauek egun batzordea osatzen dutenei gehituko dira, aurrerantzean beraz, Gipuzkoako Bazkundeko Batzorde Exekutiboak 8 kide izan ordez 12 izango ditu.

2018-2022 legealdiko Osoko Bilkura osatzeko Gipuzkoako Bazkundeko Osoko Bilkurako bost gonbidatu iraunkorrak izendatu dira: Beñat Muñoz, Fernando Soto, Iñaki Olaizola, José María Echarri eta Marisa Arriola. Gonbidatu iraunkorrak Gipuzkoako Lurralde Historikoko bizitza ekonomimoan ospea duten pertsonak dira eta hauek Osoko Bilkuran ahotsa izango dute baina ez bozkatzeko eskubidea.

Azken izendapen hauekin Gipuzkoako Bazkundeko Osoko Bilkura erabat osatuta geratu da. Horrela 2019ko aurrekontuak onartu dira eta aurreko legealdiko bilkurako kideei omenaldi txiki bat egin zaie.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irene Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347